



**Hezkuntza sailburuordearen 2021eko urtarrilaren 19ko EBAZPENA. Horren bidez zehaztu dira Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan 2020/2021 ikasturtean zehar oinarrizko kompetentzien ebaluazio diagnostikoaren prozesuan aurreikusitako probak egiteko jarraibideak.**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ebaluazio diagnostikoaren prozesua arautzen duenak definitzen ditu: ebaluazio diagnostikoaren helburua, aplikazio eremua, xedea, edukia eta ebaluazio-prozesua eta hobekuntza-prozesua.

Ebaluazio diagnostikoko probak funts publikoak dituzten ikastetxe guztietan aplikatuko dira, 2015eko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuko 54. artikulua xedatutakoa betez; horren bidez Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak xedatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri da.

Ebaluazio diagnostikoak ikastetxeentzat prestakuntza- eta orientazio- izaera du eta familientzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat informazioa eskaintzen du. Datu zorrotz eta fidagarriak oinarri hartuta, hezkuntza arloko jardunbideari eta ikastetxeko hezkuntza arloko plangintzaren inguruan erabakiak hartzeari buruzko hausnarketa bultzatu nahi du hobekuntzarako Esku-hartze Plana aplikatuta emaitzak hobetzen laguntzeko.

2020-2021 ikasturteko errolda ebaluazioaren diagnostikoa etaparen erdikoa izango da (Lehen Hezkuntzako 4. maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila).

Ikasleei diagnostikorako probak aplikatzeko, aplikazio-prozedura zehatza eta kontrolatua behar da, eskuratuko diren emaitzetan zorrotasun maila handia bermatu ahal izateko.

Gure gizarteari une honetan eragiten dion osasun-egoera eta 2021eko bigarren hiruhilekoan gerta daitezkeen aurreikuspen zehaztugabeak direla-eta, komenigarria da 2021eko Ebaluazio Diagnostikoa aplikatzeko prozedura aldatzea, egon daitezkeen arrisku guztiak saihesteko.

Hori dela eta, etapa-erdiko Ebaluazio Diagnostikoa EAeko ikastetxe bakoitzean aplikatuko dute bertako irakasleek, ISEI-IVEIk ezarritako prozedurei jarraituz eta ikasleen informazioaren eta erabilitako proben konfidentziasuna zainduz.

Bestalde, probak aplikatzeak ikastetxeetan indarrean dagoen osasun-segurtasuna bermatuko du uneoro. Horretarako, zentroak ezarritako COVID 19 jarduera-protokoloak errespetatuko dira uneoro.

Horrekin lotuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ebaluazio diagnostikoaren prozesuak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 6.1 artikulua aurrez ikusten du Hezkuntza Sailburuordetzaren Ebazpen bidez ezarriko dela ikasturte bakoitzerako proben aplikazioa egingo den aldi zehatza eta horien iraupena. Halaber, Agindu horretako Azken Xedapenetako Lehenengoak eskumena ematen dio Hezkuntza Sailburuordetzari bertan ezarritakoa garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Beraz, 2020-2021 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoan oinarrizko kompetentzien ebaluazio diagnostikoko probak egiteko jarraibideak emateari ekin dio. Horretarako:

#### XEDATU DUT:

1. Etaparen erdiaren Ebaluazio Diagnostikoa **nahitaezkoa da ikastetxe guztietan**, eta ikastetxeko ikasle guztientzat eta zuzendariak izango dute ebaluazioa honako atal hauen arabera egiteko ardura:



- a) Ikastetxe eta talde guztietako ikasle denei ebaluatuko zaizkien kompetentziak:
- Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
  - Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
  - Matematikarako kompetentzia.
  - Zientziarako kompetentzia.
- b) Ikasle guztiek hurrengo probetako bana egingo dute: Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia ala Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia. DBHn ikasle talde batek euskarazko ala gaztelaniazko idazmena egingo du.
- c) Azkenik, ikasle guztiek bete beharko dute testuinguruari buruzko galdera-sorta bat. Bertan bilduko dira ezaugarri indibidualekin lotutako eta ikastetxearen inguruko galderak, baita euskal hezkuntza-sistamarako interesgarriak diren beste arlo batzuk ere (euskararen erabilera, berdinen arteko tratatu txarrei buruzko pertzepzioa).
- d) Etapa erdiko ebaluazio diagnostikoaren probak ondoz ondoko bi eskola-egunetan aplikatuko dira, goizeko saioetan. Bi egun horietan, parte hartuko duten ikasleen ordutegia ebaluazio honetako antolaketa-beharren arabera egokitu beharko da. Aplikazio-egunetako bakoitzean, ikasleek errendimendu-probak egingo dituzte eta proben artean atsedenaldiak izango dituzte.
- Lehen eguna:
    - Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
    - Matematikarako kompetentzia.
    - Atsedenaldia.
    - Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia ala Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia. DBHn ikasle talde batek euskarazko, gaztelaniazko ala ingelesezko idazmena egingo du.
  - Bigarren eguna:
    - Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
    - Zientziarako kompetentzia.
    - Atsedenaldia.
    - Testuinguruari buruzko galdera-sorta.
- e) Probak aplikatzeko aldia honako hau izango da:
- DBHko 2. mailako ikasleak: 2021eko martxoaren 1etik martxoaren 12ra.
  - Lehen hezkuntzako ikasleak 2021eko martxoaren 15etik martxoaren 26ra.
  - Aplikazioan sor daitezkeen ezohiko edo ustekabeko egoerak konpontzeko, aurreko puntuetan adierazitako aplikazio-aldiak egun batzuek luza daitezke.
- f) Probak gailu informatiko baten bidez egingo dira (ordenagailua, Chromebook edo tableta); ahal dela, online aplikazioa izango da hori egiteko baliabideak dituzten zentro guztietan.
- g) Aplikazioa egiteko, ikasleen berezko gailuak erabili ahal izango dira; nolana ere, **ikastetxeak eskuragarri dauden gailu propioak jarriko ditu ikasleen eskura, bereziki Hezkuntza Sailak emandako eredu berriak**, ikastetxearen COVID19 protokoloari jarraituz.
2. Gaur egungo osasun-egoera dela eta, komenigarria da ikastetxetik kanpoko langileek ahalik eta esku-hartze txikiena egitea. Hori dela eta, **ikastetxeko irakasleek aplikatuko dituzte** errendimendu-probak, honako irizpide hauen arabera:
- Lehen Hezkuntzako 4. mailan, ahal dela, taldeko irakasle ez tutore bat arduratuko da aplikazioa egiteaz eta prozesua behar bezala doala zaintzeaz, baita probak egiten ari diren bitartean ikasleekin egoteaz ere.



- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan, ebaluatuko den konpetentzia ematen ez duen irakaslea arduratuko da aplikazioa egiteaz eta prozesua behar bezala doala zaintzeaz, eta gelan egongo da hurrengo proba aplikatuko duen irakaslea iritsi arte. Funtsezkoa da ikasleak une oro irakasleren batekin egotea gelan.
  - c) Aplikazioan zehar, gelako irakasle arduradunak hari buruzko galderak biltzen dituen formulario bat bete beharko du (bertaratzea, gorabeherak).
3. Hezkuntza Sailak, lehiaketa publiko bidez, 2020ko maiatzaren 25ean Ikertalde enpresari esleitu dizkio Ebaluazio Diagnostikoarekin lotutako lanak. ISEI-IVEIk enpresa esleipendunaren lana gainbegiratu du zuzenean, eta zorrotz bete beharko ditu ebaluazio honetarako definitutako protokolo eta irizpide estandarizatu guztiak. Uneren batean enpresako norbaitek zentrorra joan behar badu, bertako COVID-19 protokoloa ezagutu eta errespetatu beharko du.
4. Osasun-alarmako egoera dela eta, zentroekiko komunikazioa kanal hauen bidez egingo da:
- a) Ikasleei eta ikastetxeari buruzko datuak sartzean, ISEI-IVEIk telefono bat eta posta elektronikoko bat jarriko ditu ikastetxeen eskura, laguntzeko. Era berean, zonako on-line bilera-deialdiak egiteko aukera aztertuko da, Ebaluazio Diagnostikoari buruz eskura dagoen informazio guztia helarazteko zuzendaritzei.
  - b) Ebaluazio Diagnostikoak irauten duen bitartean, bai ISEI-IVEIk bai Ikertalde enpresak zentroei arreta emateko zerbitzu iraunkor bat izango dute martxan, aplikazio-prozesu horretan sor daitezkeen arazoak azkar eta eraginkortasunez konpontzen direla bermatzeko.
5. Aplikazioetan erabiliko diren material informatikoak gainbegiratzeko ikastetxetik kanpoko langileen esku-hartzea ikastetxean ezarritako COVID-19 protokolei jarraituz egingo da, eta ez dute inolako harremanik izango ikastetxeko ikasleekin.
6. ISEI-IVEIk errendimendu-proben online simulazioa jarriko du ikastetxeen zerbitzura, ikastetxeak eta ikasleek aplikazio-sistema ezagutu dezaten eta sor daitezkeen arazoak konpon ditzaten.

Gainera, **on-line modua** aukeratzen duten ikastetxe guztiak ebaluazioan zehar honako hauek egin beharko dituzte:

- a) Simulazioa probak aplikatzeko baldintza tekniko berberetan egitea: ordenagailu berean, ikasle guztiak aldi berean eta ikastetxearen ohiko dinamika errespetatuz, simulazioa egitean Internetera konektatutako ordenagailuen kopuruari dagokionez.
  - b) Ikasle guztiak simulazioarekin duten konektibitatea eten egiten bada zenbait arrazoi teknikoengatik, berehala jakinarazi beharko zaio Ikertalde enpresari.
  - c) Aplikaziorako konektibitatea eteten bada ikastetxeko wifi sareko gaitasuna baten ondorioz, klaustroak sarearen erabilera doitu beharko du aplikazio-egunetarako, konektibitatea bermatuta gera dadin.
7. Ebaluazio Diagnostiko honen aplikazioa garatzean, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:
- a) Etapa erdiko Ebaluazio Diagnostikoan, ikastetxe bakoitzeko etapa bereko talde guztiak probak aldi berean egin beharko dituzte, egun berean eta protokolo eta aplikazio-irizpide berberen arabera, ikasle guztiak probak baldintza beretan egiten dituztela bermatzeko.
  - b) Ikasleak aplikazioko gelan egongo dira taldearekin ebaluazio honetako saio bakoitzerako aurrez ikusitako denbora amaitu arte.
  - c) **Zuzendaritza-taldeari dagokio ikastetxean aplikatzeko prozedura zehatza ezartzea, ikasle guztiak horiek egiteko behar diren materialak dituztela zaintzea, ordutegiak eta talde bakoitzean aplikatzeaz arduratuko diren pertsonak ezartzea, baita, zuzenean edo zuzendaritza-talde horrek izendatutako pertsonak izendatuta, ebaluazio diagnostikoaren prozesuak ezarritako arauak betetzen dituela eta ikasleen datuen eta proben konfidentziasuna bermatzen dela gainbegiratzeko ere. Zuzendaritza-taldeak, 2008ko abenduaren 2ko Aginduko 5.3 artikuluan definitutako**



- Koordinazio Batzordearen bidez, antolaketa mailako neurri egokiak hartuko ditu ikastetxeko ikasleek probak ahalik eta baldintza onenetan egingo dituztela **bermatzeko**, ikasleen errendimendua eragotz lezakeen etenik eta distrakziorik gabe.
- d) Zuzendaritza-talde bakoitzak alde zuzenetik ezarriko du, jakinarazpen ofizial baten bidez, zein egunetan aplikatuko den bere ikastetxean. Baldin eta, guztiz justifikatutako arrazoiengatik, ezin badira probak proposatutako egunetan egin, ikastetxeko zuzendariak horren berri emango dio, posta elektronikoz ISEI-IVEIri, aldaketa adosteko.
  - e) Ebaluazioaren aplikazioa ikastetxearen egoerarako egokiena izan dadin, **ekipo informatikoen inbentarioa egingo da, baita zentroaren konektibitatearen ezaugarriena ere. Ondoren, ikastetxearekin adostuko da aplikazio-sistema — on-line/off-line — egokiena zein den.**
  - f) Proba ikasgelan egiten ari den bitartean, ebaluazio honetan erabiltzen diren material eta tresna guztiak zaintzeaz arduratuko da irakaslea, baita horien **konfidentzialtasun osoa** bermatzeaz ere. Horretarako, uneoro saihestu beharko du aplikazio-prozesutik kanpoko edozein pertsona ezagutzea edo maneiatzea.
  - g) ISEI-IVEI on-line materialak egingo ditu probak aplikatzeko jarraibideekin, horien ardura duten irakasleek inolako zailtasunik gabe egin ahal izan ditzaten.
  - h) Enpresa aplikatzaileak telefono eta on-line arreta-zerbitzu bat izango du berehala erantzuteko eta zentroek aplikazioaren aurreko egunetan eta aplikazioan zehar izan ditzaketen zalantza guztiak argitzeko.
  - i) Une jakin batzuetan eta hautatutako geletan, aplikazio-prozesuari buruzko kontrol- eta ebaluazio-funtzioak dituen beste pertsonaren bat egon ahal izango da (Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI, Ikertalde), betiere ikastetxearen COVID-19 protokoloak betez.
  - j) ACI duen ikasleren bat eskolatuta dagoen taldeetan, pertsonaren baten laguntza behar badu (interpretea edo zeinu-hizkuntzako irakaslea, hezkuntza-laguntzako aditua, IBT-CRIko langile teknikoa), probak egin bitartean bertan egon ahal izango da, ikastetxeak esleitutako irakasleaz gain. Laguntzaile horrek bere funtzioa garatzean ezagutuko dituen probetako edukiaren inguruan isilpekotasun-konpromisoa sinatzeko betebeharra izango du.
  - k) Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ikastetxearen oinarrizko ezaugarri batzuen inguruko testuinguruaren gaineko galdera-sorta beteko du. Datu horiek erabiliko ditu ISEI-IVEI emaitzak interpretatzeko.
  - l) Lehen Hezkuntzako 4. mailako edo DBHko 2. mailako ikasleei **eskolak ematen dizkieten irakasleek** testuinguruari buruzko galdera-sorta bat osatuko dute, emaitzen interpretazioa egoera errealerako egokiena izan dadin.
  - m) Ebaluazio diagnostikoarekin batera, Lehen Hezkuntzako eta DBHko irakasleen lagin bati euskararen irakaskuntzarekin lotutako galdera-sorta bat aplikatuko zaio, haien egoeraren diagnostiko zehatzagoa egiteko.
8. Galdera-sorta eta kompetentzien errendimendu-proben aplikazioa ordenagailu bidez egingo da. Horretarako, aplikazioaren beharretara ondoen egokitzen den ikastetxeko ekipamendu informatikoa erabiltzen saiatuko da, honako irizpide hauen arabera:
- a) Ikastetxeak bermatu beharko du ebaluazio-proben aplikazio-aldian ekipo informatikoak sare elektrikora konektatuta egongo direla edo, bestela, ebaluazioko hiru probak garatzeko (goiz osoan) beharrezko iraupena duten bateriak izatea.
  - b) Aplikazioa Interneteko konexio bidez egingo balitz (on line), ekipo informatikoen (IKT) arduraduna den ikastetxeko norbaitek laguntzeko prest egon beharko du aplikazio-egunetan.
  - c) Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako probetan, entzumenari eskainitako atalerako, zenbait entzunaldi egingo dira. Hori dela eta, ikastetxeak bermatuko du ikasle guztiak izango dituztela konekta daitezkeen aurikular pertsonalak, eta aplikazioa baino lehen egiaztatu beharko dute ekipamendu informatikoetan funtzionatzen dutela, hizkuntza- komunikaziorako entzumeneko probak egingo dituzten bi egunetan erabili ahal izateko. Helburua da ikasle bakoitzak modu autonomoan eta higiene-bermeekin entzun ahal izatea entzunaldi horiek.



- d) Beharrezkoa izanez gero, zentroak Ikertalde enpresako langileak izan ahal izango ditu, aplikaziorako erabiliko diren ordenagailuak prestatzen eta eguneratzen laguntzeko.
9. Probak aplikatu baino egun batzuk lehenago, ebaluazio honetan parte hartuko duten talde bakoitzeko tutoreak ikasleei proben helburuen, ezaugarrien eta garrantziaren berri eman beharko die. Era berean, ISEI-IVEIk ikastetxe guztiei ebaluazio-probak egiteko jarraibide orokorrak bidaliko dizkie aplikazio-aldia baino aste batzuk lehenago, eta haien esku utziko ditu konpetentzia guztietako proben simulazio-adibideak eta liberatutako itemak, hala, ikasleek proben formatuarekin aurretik ohitzeko aukera izango dute. **Ikasleei ez zaie esango aplikazioko data zehatzak zein diren.**
10. Hezkuntza Ikuskaritzak proben aplikazio-prozesuaren kontrola egingo du taldeen lagin batean, ebaluazio honetarako ezarritako irizpide estandarizatu guztiak errespetatzen direla egiaztatzeko. Lan horren ondoren, Hezkuntzako Ikuskaritzak laburpen-txostena egingo du, eta hori Hezkuntzako Sailburuordetzara eta ISEI-IVEIra bidaliko dute. Txosten horretan bilduko dira aplikazio-prozesuan detektatutako arazoak, haren balorazio orokorra eta egokitzat hartutako hobekuntza-proposamenak.
11. Etapa erdiko ebaluazioa egindakoan, honako txosten hauek egingo dira:
- a) Ikastetxearen behin-behineko txostena (2021eko ekainean),
  - b) Ikastetxeko behin betiko txostena eta familientzako banakako txostenak (2021ko azaroan),
  - c) Hezkuntza-sistemaren txosten exekutiboa (2022ko otsailean).

Txosten horiek bidaltzean, kontuan hartu beharko da izaera pertsonaleko datuak babesteko 15/1999 Lege Organikoa, baita informazioaren sarbide, erabilera eta tratamenduari buruzko 2008ko abenduaren 2ko Aginduko 7. Artikuluan adierazitako berme guztiak ere. Zuzendaritza-taldeak, 2008ko abenduaren 2ko Aginduko 8.2 artikulua adierazten duen moduan, familia bakoitzari banakako emaitzak ematea kudeatu beharko du.

12. Jasotako emaitzek ikastetxe bakoitzaren barne-ebaluazioen informazioa osatzeko balioko dute, hobekuntza-prozesuarekin jarraitzeko, 2008ko abenduaren 2ko Agindu horretan 8. artikuluan adierazten den moduan. Hobekuntza-prozesu horretan, 2021eko ebaluazioan lortutako emaitzez gain, aurreko ebaluazio diagnostikoetan lortutakoak ere kontuan hartuko dira, baita ikastetxeko aurreko hobekuntza-planetan definitutako eta adostutako jarduketa-proposamenak eta Hezkuntza Sailak izaera orokorrarekin ezarritako hobekuntza-helburuak ere.

Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 19an

Hezkuntzako sailburuordea

Begoña Pedrosa Lobato

